

mar arte

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN

Xalbador eta Uztapideren arteko adiskidetasunean sakondu du Pako Aristik

Ereinek argitaratutako liburua mugarri izan da Urepele eta Zestoaren arteko senidetze ekitaldien artean

✍ Harri X. Fernández
📍 Ruben Plaza


DONOSTIA – Zestoaren eta Urepele-
ren arteko senidetzea dela eta, ekimen
horri "zentzua eman" nahian, Uztapi-
de eta Xalbador bertsolarien arteko
laguntasuna sakonki aztertu du Pako
Aristik. Ereinek argitaratutako *Uzta-
pide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz
gaindi* liburua atzo aurkeztu zuten,
Donostian. Bertan izan dira Xole Aire
eta Mikel Arregi, Urepele eta Zesto-
ako alkateak, hurrenez hurren, Ere-
ingo editore Inazio Mujika Iraola, eta
idazlea bera.

Xalbador oraindik ere bizirik dago-
la esan zuen Aristik; Uztapide, ordea,
beste plaza gizon asko bezala, ez
dagoela hain presente. Ikertzaileak
gogora ekarri zuen, hamabost bat
euskal banda izango direla Urepeleko
artzainaren koplak musikatu dituzte-
nak: "Ez dago Euskal Herrian beste
poetarik hainbeste sorkuntza musi-
kara eramanda dituenik".

Baina zergatik iraun du Urepeleko-
aren figurak eta ez Uztapiderenak?
Bertsotan jarduterakoan bien arteko
jarrera kontrajarriagatik dela iritzi dio
Aristik. Uztapide maisua zen erreali-
tate hurbilari kantatu behar zitzaio-
nean, tradizioa ondo baino hobeto
ezagutzen zuen, "hizkuntza ondo bai-
no hobeto menperatzen zuen", "oso
erregularra zen" eta dieselarekin eli-
katzen zen, berotzen zenean buldo-
zer bat bezala aritzen zen bertsotan.
Xalbador, aldiz, "airekoa" zen, "abs-
traktuagoa", "filosofikoagoa, poetikoa"
eta, horrexegatik, ez zegoen bere
garaiari hain lotuta. Behin frankismoa
bukatuta, iritzi du Aristik, Uztapidek
kantatutakoek ez zuten jada plazan
tokirik.

TXIRITAREN TXAPELA Bertsotan oso
desberdin aritu arren, oso hurbi-
lekoak izatera iritsi ziren. Miresmen
handia zioten elkarri, gainera. Esate
baterako, Xalbadorek idatzitako *Odo-
laren mintzoa* liburuan badira Uzta-
pideri eskainitako zenbait kopia. Eta
bestelakoan, zestoarraren *Sasoi joan
eta gero* bertso sortan, badira bere
lagunaren inguruan idatzitakoak ere.

Hamaika urteko tartearrekin jaio
ziren biak. 1909ko maiatzaren 10ean
lehenengo, Endoia auzoko Uztapide
baserrian, Zestoako udalerrian. Biga-
rrena, aldiz, 1920ko ekainaren 19an



Pako Aristik 'Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi' aurkeztu zuen atzo, Donostian.

sortu zen, Xalbadorrenea baserrian,
Urepelen, Nafarroa Beherean, Zesto-
atik 146 kilometroa.

Hona hemen bien arteko lehenen-
go parekotasuna: hamasei urterekin
kantatu zuten bakoitzak bere lehe-
nengo bertsoa. 1936ko Euskal Herri-
ko txapelketan Uztapide bigarren
geratu zen, Txirritaren atzetik. Urte
horretan bertan bota zuen Xalbador-
rek bere lehen bertsoa. Txirritari
txapela eman zitzaioneko txapelke-
ta horretako gertakari bat ere argitu
nahi izan du egileak. Uztapideri epai-
mahaiko kide batek esan omen zion
txapela berea zela, baina Txirritari
emango ziotela, jada gizon heldua
zelako. Pasarte hori gaurdaino iritsi
da eta askotan errepikatua izan da.

Aristiren ekarpenak frogatu du ezetz,
puntuen arabera, hermaniarrek lege
onez irabazi zuela. Are gehiago, Uzta-
pideri hura esan ziona nor izan ote
zen ondorioztatzeko argudioak ere
mahai gainean jarri ditu ikertzaileak.

Hamar urteren ostean, Gerra Zibi-
la eta Bigarren Mundu Gerra behin
bukatuta, mugaren beste aldean
erbesteratua zegoen Teodoro Her-
nandorenak, Iparraldean bertsola-
ririk ba ote zen jakin nahian, jaialdi
bat antolatu zuen Donibane
Lohizunen, eta bertan ezagutu
zuten elkar Xalbadorek eta bere
bikotekide izango zen Mattinek
–Uztapide, Hegoaldean, Baxarri-
rekin ibiltzen zen–. Urte hartan ber-
tan, Zarauzko saio batean elkartu

ziren lehen aldiz Urepeleko eta Zes-
toako semeak. Halere, bien arteko
laguntasuna ez zen mamitu 1949ra
arte, Urrufiean jaialdia ospatu zen
arte. Adiskidetasun "emankor"
horrek 30 urte iraun zuen, Xalba-
dor 1976an hil zen arte.

Bien puntu gorena 1960.
hamarkadan iritsi zela azaldu zuen
Aristik: "Hamar urte horietan seku-
lako maila mantendu zuten biek".
Lau txapelketa antolatu ziren tar-
te horretan. Lehenengoan, 1960.
urtekoan Uztapidek bigarren pos-
tua lortu zuen, eta beste hiruretan
txapeldun geratu zen. Xalbador,
aldiz, lehenengoan laugarren gera-
tu zen; bigarrenetan eta hirugarren-
etan, hirugarren; eta azkenekoan,

1967koan, bigarren: "Hor ikus
liteke Xalbadoren progresioa".

TXISTUAK Xalbadorri zazpi minutuz
txistuak bota zizkietenekoak ere jaso
ditu Aristik. Hain zuzen ere 1967ko
txapelketan. Gogora ekarri zuen nola,
bertsotan ulerkorrago aritzeko
Gipuzkoako hizkerara moldatu zen
Urepelekoa, behenafar moduak gal-
du gabe. Xalbador hurbiletik ezagu-
tu zuen Jexux Mari Mujika ere izan
zen aurkezpenean, eta hari horri tira-
ka aipatu zuen, bere hizkeragatik ez
onartua izatea izan omen zela Xalba-
dor bere garaian gehien mindu zuen
gauzetako bat.

1967an gertatutakora itzuliz, txap-
elketa Donostian ospatu zen.
Gipuzkoarrak ziren ikusle gehienak,
eta Uztapideren aurkako buruz-
burukoan Lazkao Txiki aurtuko zela
uste zuen jendeak. Epaimahaiaik
ordea, Xalbadorri eman zion finale-
rako txartela. Txistuak jotzen zituz-
ten bitartean, Zestoako laguna
ondoan izan zuen beti Urepelekoak.
Zalaparta bukatutakoan, hain ezagun
egin diren bertsoak bota zituen Xal-
badorek: "Zuek ez bazerate konten-
tu, errua ez daukat ez nik, txistuak jo
dituzue baina maite zaituztet orain-
dik". Garai zailetan bi lagunak elka-
rrekin izan zirela diogu, eta baxena-
barrarrari hura gertatu ondoren, Uzta-
pide muti geratu zenekoa etorri zen.
1972an, Anoetako pilotalekuko jaial-
dian hitzik gabe geratu zen plaza-gi-
zoa, zurbil eta ahul. Bihotzekoa eman
zion eta bere ondoan izan zen Xalba-
dor. Hura izan zen Uztapideren azken
saioa, plazetatik erretiratzea erabaki
baitzuen.

"ZAPATA BERRIAK, ZERTARAKO?"
Xabier Leteren *Xalbadoren herio-
tzean* abestiagatik da ezagun nola-
koa izan zen Urepeleko artzainaren
azken eguna; hain zuzen ere, bere
herrian, bere omenez antolatutako
jaialdian. Aristik esan zuenez, aurre-
tik ere sentitu omen zuen azkenetan
zegoela. Hilzorian aitortu zion emaz-
teari testamentu berri bat egina zue-
la eta hura non aurkitu. Aurrez,
emazteak berak proposatu zion
omenaldirako zapata berriak eros-
tea. "Zapata berriak, zertarako?",
erantzun omen zion. Ez zuen uste
behin baino gehiagotan erabiliko
zituena. Arrazoia zuen. ●